



KONTUAN HARTZEKOAK:


- Aitorpena aurkezteko epea:
2010eko apirilaren 20tik ekainaren 25era.
- Hitzordua eskatzeko eta kontsultak egiteko telefonoa:
902 100 040
- Interneten argibideak:
www.gipuzkoa.net/ogasuna



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO AUKERAK ZUMAIAN

KUTXA 943 01 25 00
 RICARDO J. AZCUE 943 86 26 51
 RURAL KUTXA 943 86 56 28
 UNANUE AHOLKULARIAK 943 86 09 60
 ZUMAI AHOLKULARITZA 943 86 26 24

	2007an	2009an
Aitorpena egin zuten herritarrak	4.560	5.058
Foru Ogasunarekin harremanak euskaraz izan daitezela eskatu zuten zumaierak	543 (%11,9)	758 (%14,98)



egin euskaraz ERRENTA AITORPENA

Euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba?



Zumaiako Udala



Gaur egun errenta egiteko 4 modu daude eta guztietan erabil daiteke euskara. Nola? Segi irakurtzen.



Autolikidazio proposamena

Zergadun batzuei etxera bidaliko dizute proposamena, Foru Ogasunak eskura daukan informazioan oinarritutakoa. Proposamena ontzat ematen baduzu, bi bide daude onartzeko: telefonoz edota Internet bidez.

Egin euskaraz: proposamena eta eskutitza ele bietan jasoko duzu. Telefonoa erabiliz gero, euskaraz hitz egin eta Ogasuneko langileak euskaraz beteko du aitortpena; gainera, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezen nahi ote duzun galdetuko dizute. Internetez eginez gero, euskarazko aukera erabil dezakezu.



Mekanizatu

Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da; zumaiarrok Azpeitian edo Donostian egin dezakegu. Horretarako hitzordua eskatu behar da, telefonoz edo Internetez.

Egin euskaraz: telefonoak euskara aukeratzeko bidea emango dizu, baita Interneteko atariak ere. Bulegoan euskaraz hitz egiten baduzu, langileak euskaraz beteko du zure aitortpena; hala ere, ziur egoteko, adieraz iezaiozu aitortpena euskaraz egiteko borondatea. Bukatzeko, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezen nahi ote duzun galdetuko dizute.



Telematikoa

Baimenduta dauden erabiltzaileek har dezakete bide hau, eta batez ere finantza-erakundeek eta artezkaritza edo aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dute. Gune horietara gure sarreraren, gastuen, kenkariaren eta abarren frogaririak eraman eta bertako langileak arduratzen dira aitortpena egin eta bidaltzeaz. Bezero jakin batzuentzako zerbitzua izan ohi da.

Egin euskaraz: eskuorri honen bukaeran daukazu Zumaian non egin ahal izango duzun zure aitortpena euskaraz. Espresuki adierazi beharko duzu bertan euskaraz egiteko borondatea.



Nork bere bidetik

Inprimakia estankoetan eros daiteke edo Internetetik jaitsi. Sinadura elektronikoa eta pasahitz operatiboa eskuratuz gero, aitortpena osorik Internet bidez ere egin daiteke.

Egin euskaraz: inprimakiak ele bietan daudenez, zeuk erabaki ahal izango duzu zein hizkuntza erabili. Interneteko gunean euskaraz betetzeko aukera izango duzu.

